



ERRENTATZAILEEK ETA ELKARBIZITZA UNITATEKO PERTSONEK EA LANBIDEK IZAPIDETUTAKO ESPEDIENTEAK (DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA) ATZITZERIK DUTEN EBAZTEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

LEHENENGOA: 2015ko urriaren 8an Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak helarazitako kontsulta idazki bat jaso genuen Datuak Babesteko Euskal Bulegoan, goiburuan adierazitako gaiari buruzko Bulegoaren iritzia eskatuz.

Eskaera idazkian honako adierazten da:

“Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politikako Sailaren menpeko erakunde autonomiaduna da, eta bere antolaketa egituraren barruan dago Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitza Prestazio Osagarria arautzen dituen Diru Sarrerak Bermatzeko Arloa.

Gauza horrela, aspaldian ikusten ari gara izapideak egiten dituzten bulegoek galdera bera egiten dutela behin eta berriz, hau da, ea administrazio espediente bateko dokumenturik eman ahal zaion espedientearen parte ez den beste bati (gure kasuan espedientearen titularra da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularra).

Hain zuzen ere, gertatzen ari dena da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbait titularrek aurkeztutako errentamendu-kontratueta etxebizitzaren errentatzaileen sinadurak agertzen direla (bere adostasunaren adierazgarri). Eta errentatzaileek badakitenez sinadura ez dela beraiena edo faltsua dela, dokumentuaren kopia eskatzen digute. Baina, errentatzailea (jabea) ez denez berez interesduna Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren espedientearen, zalantza bat dugu, eta da ea errentatzaileak dokumentuaren kopia bat eskatzeko eskubide duena, edo, kontrara, Lanbidek espedientearen atzitzeko baimena ukatu behar dion, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoaren (DBLO) izenean, edo, agian, bai eta Administrazio Prozedurari buruzko 30/1992 Legearen izenean ere.

Beste alde batetik, Lanbideko lurralde bulegoetakoek hainbatetan galdetu digute ea elkarbizitza unitateetako pertsonak ikus dezaketen espedientearen edo espedientearen dauden agiriak kopiak eskatu, nahiz eta ez izan espedientearen titularrak”.

BIGARRENA: Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 artikuluko n) letrak honako eginkizuna esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

“Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea”.

Beraz, goiko arau hori kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko txostena egitea.



KONTUAN HARTZEKOAK

I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu diote ea ondo ezkontzen diren oinarrizko eskubidearekin diru-sarrerak bermatzeko errenta espedienteetako dokumentazioaren eskaerak.

Kontsultak aipatzen duen datu-tratamendua datu-lagatzzea edo datu-komunikazio bat da, eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko Lege Organikoaren (aurrerantzean DBLO) 3 i) artikuluan dago horren definizioa: *“interesduna ez den beste pertsona bati datuak erakustea”*.

Datu-lagatzteen erregimen orokorra DBLOren 11. artikuluan dago xedatuta, eta 1. idatz-zatiak dio arau orokorra dela horretarako ukituaren adostasuna behar dela: *“Tratatu beharreko datu pertsonalak hirugarren bati komunikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen eginkizun legitimoekin lotuta dauden helburuetarako izatea, hau da, bakar-bakarrik horretarako izatea, eta interesdunaren alde aurreko adostasuna beharko da”*.

Nahiz eta arau orokorrak esan adostasuna beharrezkoa dela, arauak salbuespenak ere baditu, eta 11. artikuluko 2. idatz-zatian daude jasota. Aipatzekoa da a) idatz-zatikoa: *“Lege batek baimentzen badu lagapen”*.

Beraz, aztertu beharko dugu ea ba ote dagoen lege mailako arauen bat baimentzen duena halako datuak lagatzzea, adostasun beharrik gabe. Horretarako, gure ondorioetarako, lehendabizi aztertu beharko du zer dioten Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko araudiak (abenduaren 23ko 18/2008 Legea eta legea garatzen duen erregelamendua).

Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko Dekretuak datuen konfidentzialtasunari buruzko artikulua bat du:

“65. artikulua.- Datuen konfidentzialtasuna.

1.- Euskal administrazio publikoek bermatuko dute organismo eskudunek espedienteak izapidetzerakoan lortutako datuak isilpean gordeko dituztela, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, izaera pertsonaleko datuak babestekoan, ezarritako moduan.

2.- Euskal administrazio publiko eskudunek eska ditzaketen diru-sarrerak bermatzeko errentaren eskatzaile edo titularren edo haien bizikidetzaren unitate independenteko kideen datu eta txosten guztiak mugatu egingo dira, diru-sarrerak Bermatzeko edo Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean ezarritako prestazioa edota betebeharra baliatzeko eskakizunak betetzen direla egiaztatzeke ezinbestekoak direneta mugatu ere.

3.- Aurrekoa aparte utzi gabe, kontuan hartu beharko da administrazio publikoek beren artean lankidetzan aritzeko betebeharrak orokorra dutela, eta beren esparruan komunikazio-ildoak ezartzea komeni dela, informazio-sistema arina, etengabe eguneratua eta, artatutako pertsonen alde aurreko adostasunarekin eta beharrezkotzat jotzen diren segurtasun-sistema guztien aplikazioa tarteko, euskal administrazio publikoen artean informazio mota jakinak partekatzea ahalbidetu duena, hain zuzen ere”.



Baina, artikuluko horretako aurreikuspena orokorregia da, eta ez du argitzen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko espedienteetako informazioa atzitzeari buruzko auzia. Guri egin diguten kontsultari dagokionez, badirudi datuak komunikatu ahal izateko adostasunaren beharra dagoela, lege gaikuntzarik ez badago behintzat.

Edozelan ere, Lanbidek egindako galderak ikusita, eta lehenengo galderari erreparatuta, ezin da esan datu-lagatzea denik pertsona batek (errentatzaileak) eskatu duen dokumentua (errentamendu-kontratua) lagatzea, ustez berak Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren hartzailearekin sinatutako dokumentu bat delako. Gure ustez kasu honetan ezin da esan datu pertsonalak babesteko oinarritzko eskubideak denik dokumentua atzitzeko eskabidea ukatzeko arrazoia; batetik, dokumentua faltsua ez bada, errentatzaileak eta errentariak biek sinatutako agiria delako eta biek dakitelako zer den dokumentuan jasota dagoena; eta horren frogara bada biek sinatu dutela dokumentua. Eta, gainera, dokumentua faltsua bada, are argiago geratzen da errentatzaileak interes legitimoa duela dokumentua atzitzeko; eta, horregatik, ez da onargarria 30/1999 Legea izatea eskabidea ez onartzeko arrazoia, argi dagoelako errentatzailea interesduna dela, batez ere bere identitatea faltsutu badute.

Lanbidek egindako bigarren galdera da ea “elkarbizitza unitateetako pertsonek ikus dezaketen espediente edo espedientearen dauden agirien kopia eskatu, nahiz eta ez izan espedientearen titularrak”.

Galdera horri erantzuteko, lehen aipatu dugun legedi sektorialera jo behar dugu. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak dio *“diru-sarrerak bermatzeko errenta aldizkako eta eskubide subjektiboko prestazio ekonomiko bat dela, oinarritzko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukan bizikidetza-unitate batean integratutako kideei zuzendua”*.

Legearen 8. artikulua dio zein diren titularrak, hartzaileak eta jasotzaileak.

“18. artikulua.- Titularrak, hartzaileak eta jasotzaileak.

1.- Lege honetan araututako eskubidezko prestazio ekonomikoen edota, hala badagokio, gizarteratzeko tresnen titularrak hauek izango dira: prestazioa noren izenean izapidetu eta onartu den, horietatik, prestaziorako edo gizarteratzeko hitzarmenerako izango duten beroriek.

2.- Eskubidezko prestazio ekonomikoen eta gizarteratzeko hitzarmenen hartzaileak hauek izango dira: titularren bizikidetza-unitateko kideak.

Diru-laguntzen kasuan, laguntza noren izenean izapidetu eta nori onartu zaion, horixe izango da onuraduna.

3.- Orokorrean, lege honetan araututako eskubidezko prestazio ekonomikoen jasotzaileak, hain justu ere, prestazioen titularrak berak izango dira. Diru-laguntzen kasuan, jasotzaileak, orokorrean, laguntza horien onuradunak berak izango dira.

Aurrekoa gorabehera, eta erregelamendu bidez zehaztuko diren kasuetan eta moduan, eskumena duen organoak aukera izango du prestazioa bizikidetza-unitateko beste bati ordain dakiola agintzeko”.

Ikusten da bizikidetza-unitateko kideak ere diru prestazioaren hartzaileak izan daitezkeela prozeduraren barruan, eta Lanbideren web orriko “Ohiko galderak” atalean ikus daitezkeen



informazioaren arabera, bizikidetza-unitateko kideek ere bete egin beharko dituzte prestazioa hasten denean agintzen diren betebeharrak orokorrak.

Arau horrek dioena betetzeko, bizikidetza-unitateko kideen datuak jasotzen dira *diru-sarrerak bermatzeko errenta* eskatzeko eskabide-orriaren bigarren puntuan. Inprimakiren eredia maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren eranskinean dago. Inprimakian honako datuak eskatzen dira: ordena zenbakia, izen-abizenak, NANA-pasaportea, jaioteguna, sexua, egoera zibila eta eskatzailearekiko harremana.

Eskabide orriaren 4. puntuan elkarbizitza unitatearen ondareari buruzko datuak jasotzen dira: ondasun higikorrak (libretak, akzioak, ibilgailua, ostilamendua, ...) eta higiezinak (hiri eta/edo landa finak).

Eskabiderekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak ere aipatzen dira, eta honako hauek dira: eskatzailearen eta hamasei urte edo gehiagoko familia unitatearen nortasuna egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, erroldako egiaztasun kolektiboa, elkarbizitzako unitate ekonomiko independentearen diru-sarreraren eta ondarearen zinpeko aitorpena, lanerako adina duten familiako kide guztien langabezia-txartela edo ikasten egotearen egiaztasuna, eta abar.

Gainera, inprimakiaren oharra dio administrazio publikoek espedienteetan dauden datuak eratu eta egoki iruditzen zaizkien egiaztapenak egin ahal izango dituztela; eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuei ere behar beste datu eta txosten eskatu ahal izango dizkietela.

Ikusten denez, eskatzailearen eta elkarbizitza unitateko kideen datuak eskatzen dituzte, eta, ondorioz, bildu; eta datu horiek egiaztatu egin ditzakete.

Gogoeta horiek guzti horiek ikusita, argi dago bizikidetza unitate bateko kide izateak esan nahi duela eskatutako gizarte prestazioko hirugarrena ere badela, eta ez kanpoko hirugarren bat; beraz, prestazioa jasotzeko izapidetzen den prozedura barrukoa da. Pertsona horiek diru-sarrerak bermatzeko errentaren gaineko eskubideen eta betebeharren subjektuak direnez, biak dira interesdunak, bakoitza berari buruzko prozeduraren baitan; eta, beraz, eskubidea dute jakiteko diru-sarrerak bermatzeko errentaren espedientearen izapidetze egoera zein den eta espedienteak dauden dokumentuen kopiak eskuratzeko. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 35 a) artikulua dio hala dela, eta 30/1992 Legeak betetzen du gainera Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 11.2 a) artikulua aipatzen duen adostasunaren salbuespena.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 26a